

'Bidezko Merkataritza' postua jarriko dute gaurtik igandera, Karitaseko lokalean

■ 'Urrats' taldeak eta parroko gazte talde batek jarriko dute postua ■ Gaur arratsaldeko 17:00etan zabalduko dute, baina, datozen egunetan goiz eta arratsalde egongo da zabalik: 10:00-13:30; 17:00-20:00.

ELIZAKO *Urrats* misio taldeak eta parroko gazte talde batek *Komertzio justua* edo *Bidezko merkataritza* deitzen den denda jarriko dute Karitaseko lokalean, Tiloletan (lehen tonbola zegoeneko horretan). Dendan, herrialde ezberdinetako produktuak egongo dira salgai.

Interkanbio justuaren alde *Bidezko merkataritzaren* bitartez, Hernaniko bi taldeok Munduko desoreka ekonomikoa salatu eta interkanbio justuan oinarritutako sistema ekonomikoa defendatzen dute. Interkanbio justu horren lekuko, Hernanin salgai jarri dituzten produktuak dira. Produktu horiek zuzenean produktoreei erosiak dira, eta prezio duinean ordaindutakoak. Hain zuzen ere, *bidezko merkataritza* defendatzen duen puntuetako bat da produktorei zuzenean erostea gauzak eta behar bezala ordaintzea.



Bidezko merkataritzako denda zenbait herrialdeetako produktuak egongo dira salgai.

Bidezko merkataritzako denda urtero jartzen dute Hernanin eta aurten ere 4 egunetan egongo da zabalik. Gaur arratsaldean zabalduko

dute, 17:00etan eta bihurtik aurrera goiz eta arratsalde zabalduko dute: goizetan 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeetan 17:00etatik

20:00etara. Igandetik aurrera produktuak *Bidezko merkataritzako* denda batean erosi nahi dituenak Donostian du bat, Juan de Bilbao kalean. □

BERTSO LATA

Xabier Amuriza eta Jon Maia gaur Kixkal tabernan

MENDE baten aldarriak hogeigarrenean jarriak ikuskizuna emango dute gaur Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsolariek. Hogeigarren mendeko bertso zaharrak kantatutako dituzte, joandako mendeen historia eta kontuak azaltzeko. Gaur 20:00etan, Kixkal tabernan.

Bihar, berriz, Bertso Afari prehistorikoa egingo dute Sustrai Colinak eta Unai Iturriagak Arrigoain jatetxean, afal ondoan. Afari txartelak salgai daude Kitton, Oindin, Garinen, Aralarren, Irrintzin eta Arrigoain jatetxean bertan.

Karobi elkarteak 2garren urteurrena

LATSUNBE Berriko Karobi elkarteak sortu zela 2 urte betetzen ditu. Horren bueltan *Kristian* magoaren ikuskizuna eta txokolatada antolatu dute gaurko, bazkideen seme-alaba eta lagunentzako. Larunbatean, berriz, urteurreneko afaria izango da.

Plenoa gaur Udaletxean

PLENOA dago gaur udaletxean, 12 puntu eztabaidatzeko. Puntuetako bat Epeleko Etxeberrin hotela egiteko arau subsidiarioak aldatzeko eskaera da. Gaur arratsaldeko 19:00etan. □



Osiñagako Mus txapelketako sarituak, Batis eta Titi txapeldunak erdian direla.

Osiñagako mus txapelketan Batis -Titi txapeldun, eta saskia Okendo-Eneara joan da

OSIÑAGA auzoan urtero Eguberri aurrean jokatzen dute mus txapelketa. Aurtengoa joan den igandean jokatu zen eta Batis eta Titi irabazi zuten txapela. Txapeldunorde Antton Anton bikotea gelditu zen; hirugarren postuan Alber-Fernando; eta laugarren, berriz, Ketxus-Jesus.

Gabonetako saskia

Horretaz gain, auzo elkarteak urtero Gabonetako saskia zozketatzen du. Aurten, Juan Mari Mariezkurrena izan da zori onekoa, Okendo-Enea baserrikoa. Osiñagako auzo elkarteak zorionak eman dizkio. □

Arrigoain jatetxea

Gabonak ondo pasa eta urteberri on, ahaztu gabe bere gogoz kontra gure artean ez daudenak

Santa Barbara 87 (Harrobian)
☎ 943 55 00 97

TXIMELETA OPARIAK
Txirrita 10
943 55 23 95
HERNANI

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Ostiral eta larunbatean afariak ematen ditugu.
Florida 54
Tel: 943 33 03 97

mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

GALARRETA JAI-ALAI FRONTOIA
Larunbatean 'BINGO LONDRES' en FINALA EZKURRA - ZEBERIO II

GAUR ARRATSALDEKO 16:00 ETATIK AURRERA ERREMONTA JAIALDIA:

- 1. partidua: ZEBERIO III - ETXEBERRIA II / ZALAKAIN - AIZPURUA II
- 2. partidua: EZKURRA - URRETABIZKAIA II / ZEBERIO II - EIZAGIRRE
- 3. partidua: ELIZALDE - ETXABE / IÑIGO - TXIKURI
- 4. partidua: BITORIA - URKO / URRETABIZKAIA - EKIZA

Arraun Elkartek asanblea du gaur

■ Gai ordenean daude balantze ekonomiko eta deportiboa, eta zuzendaritza berria aukeratzea ere bai ■ Asanblea Biterin da, arratsaldeko 19:30etan.

ARRAUN Elkartek gaur arratsaldean egingo du urteko asanblea. Ohizko batzarra izango da, baina, arrauna Hernanin nola dagoen ikusita asanblea berezia ere izango da. Gai ordenean bi puntu nagusi daude: urteko memoria ekonomiko eta deportiboa, eta junta berria aukeratzea.

Azken urteetan arraun talde askok elkartu eta biltzeko joera

hartu dute, trainerua ateratzea geroz eta zailagoa delako. Antzeko planteamendu batekin horixe egin zuten Hernani Arraun Elkartek eta Trintxerpek (Illunbe). Hitzarmenari esker, Ilunbek zenbait arraunlari utzi zizkion Hernaniri, eta hartara Hernanik trainerua garrantiaz ateratzeko modua izan zuen. Trintxerperentzat berriz bere traineruan titular ez ziren

arraunlariak zailtzeko aukera polita zen. Datorren denboraldira begira, ikusteko dago elkarlan horrek aurrera segituko duen eta Hernanik beste lagun batzuk bilatu beharko dituen.

Junta berriari dagokionez, berriz, Batis Larburu orain arte lehendakari izan denak esana du kargua utzi egingo duela, laguntzen segitzeko prest bada ere. □



Sagardotegiz sagardotegi joan zen kuadrila Elorrabitik Iparragirrerara bidean. Azkeneko zama ederra ekarri zuten bizkar gainean.

Olentzero joan zaigu, makina bat erregalo utzita

ASTEARTE arratsalderako Hernanin zen Olentzero eta izan zuen kantua eta umeen erregalo eskea entzuteko aukerarik. Langile, Urumea, Elizatxo, Inmaculada eta Txirrita

ikastetxeetako umeak kalez kale eta baserriz ibili ziren kantuan eta arratsaldeko 18:00etan egin zioten hernaniarrek harrera. Gudarien Plaza umez eta ez hain umez lepo bete zen

Olentzerori ongiatorria emateko. Udaletxeko balkoian egin zioten harrera eta Hernaniko giltza ere eman zioten tximiniarik ez duten etxeetara sartzeko. □



Ezkerrean umeak kantuan eta eskubian Olentzero Hernaniko giltza handia eskuetan duela.

Euskadiko Mahai tenis txapelketak Hernanin, gaurtik igandera

■ Aitor Mitxelena eta Aitor Valverdek jubenetan irabazteko aukera handia dute.

EUSKADIKO mahai tenis jokalaririk onenak Hernanin izango dira gaurtik igandera bitartean. Kiroldegian Euskadiko txapelketak jokatu dira kategoria absolutuan, 21 urtez azpikoetan, jubenetan, infantiletan eta alebinetan. Denera, 100 jokalaririk inguru izango dira Hernanin, eta 15 inguru hernaniarrak. Egun bakoitzean kategoria bateko partidua jokatu dira: ostegunean alebin eta infantilek jokatu dute; ostiralean, jubenetan; larunbatean, absolutuek; eta, igandean, 21 urtez azpikoek jokatu dute.

Kategoria bakoitzean 4 modalitatetan jokatu da: buruzburu, taldeka, binaka eta binaka baina neska-mutilak nahastuan.

Txema Armentia txapelketako antolatzaileetako batek adierazi du jende on asko datorela eta medailak oso garesti egongo direla. Hala ere, Armentiak uste du Aitor Mitxelena eta Aitor Valverdek jubenetan aurreko muturrean ibili behar luketela.

Asteburu bikaina

Asteburuan Iruñan torneoa jokatu zuten Euskal Herria, Aragoi eta Cantabriako selekzioek, eta hernaniarrek oso paper ona egin zuten. Valverdek irabazi egin zuen eta Mitxelena hirugarren egin zuen.

Gaztetxoetan, berriz, Erik Diezek latz jokatu zuen, eta hirugarren gelditu zen. □

■ HITZ BITAN

✓ PELOTA

Pala saioak 11 urtez gorako neskentzat. Hernaniko Pelota elkarteak antolatuta 11 urtez gorako neskentzat pala ikastaroa izango da gaur eta bihar, goizeko 10:00etan, Kiroldegian. Ikastaroa irekia da eta bakoitzak bere pala eraman beharko du.

✓ SANDIUSTERRI

Toka txapelketa gaur Zaharren Egoitzan. Sandiusterrin ekitaldi mordoa antolatu dute gabon buelta honetarako. Gaur toka txapelketa dute 17:30etan eta bihar puntu txapelketa ordu berean.

✓ IPUIAK BITERIN

Umeentzako ipuiak gaur Udal liburutegian. Itziar Zubizarreta ipui kontalariak bi sesio emango ditu gaur goizean Biterin, liburutegian. Lehenengoa 3-4 urteko haurrentzat izango da, 11:00etan eta bigarrena 5-7 urte artekoentzat 11:45ean.

✓ XAKEA

Gazteentzako xake txapelketa urtarrilaren 2an. Xake elkarteak eta Udal Kirol Patronatuak xake txapelketa antolatu dute lehen hezkuntzako 3, 4, 5, 6 garren mailako gazteentzat. Txapelketa urtarrilaren 2an izango da 09:30etan. Izen ematea kiroldegian gaur eta bihar. Telefonoa: 943 552185.

✓ ZINEA BITERIN

Doraemon gaur umeentzat. GAUR arratsaldean *Doraemon* pelikula botako dute Biteri kultur etxean. Bi sesio izango dira, bata 16:00etan eta bestea 18:00etan. □



ZABALEGUI

**Likidazioan,
berritze
lanegatik**

Zorionak eta urteberri on

Izpizua 17 - Tel. 943 55 29 47 - 20120 HERNANI

MUGI ZAITEZ !!!

ERABILI ZURE TXARTELA ETA BERRIAK
ELKARTEKO ZOZKETETAN PARTE HARTU.



SARIAK EZ DIRA
BUKATZEN,...
LORTU ZUREA!

Promozioa:
Azaroaren 15etik
urtarrilaren 15era.

"BERRIAK" HERNANIKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA



ETXE ONENAK, S.A.

**GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:

☎ 943 33.22.37



JENDAURREAN HITZ EGITEKO IKASTAROA

"Taldean partehartzea eta jende aurrean hitz egitea lantzeko".

Emakumeei zuzendua

Urtarrila eta otsailan: Astartetan
Bi ordutegi: 14:30 - 16:30
19:30 - 21:30

Lekua: Biteri Kultur Etxea
Izen emateko epea: **Urtarrilaren 3a**

LOGOTIPO LEHIAKETA: Epea: 2003-01-10
"Berdintasun Kontseiluaren Logoa"

Oinarriak eta informazioa:

Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
Karobieta 63 - Hernani - Tel.:943 55 78 54

